

BERGARAKO UDALA

Bergarako Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen Berdintasun teknikariaren plaza jabetzan betetzeko deialdia. Oposizioaldiaren inguruko jakinarazpen berriak

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera egin dutenei jakinarazten zaie epaimahaiak honako erabaki hauek hartu dituela:

Oinarrietan jasotako ariketen inguruan:

1.- Lehenengo ariketa. Izaera teorikoa duten bi atalek osatutako ariketari dagokionean:

Honela dio ariketa horren inguruan oinarrietan jasotakoak:

*" A.- Oinarri hauen **I. eranskinean** jasotako gai-zerrendaren edukiari buruzko galderak idatziz erantzun beharko dira.*

Ariketa honetan, gehienez, hamar (10) puntu lortuko dira. Gutxienez, hiru (3) puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Epaimahaiaren irizpidearen esku dago azterketa-mota aukeratzea; azterketa aukerako erantzunak ematen dituzten galdera-sortak izan daitezke, edo aipatutako gai-zerrendako gaien inguruan galdera edo gai zehatzak aukeratu eta idatziz garatzekoak izan daitezke.

*B.- Oinarri honetan **II. eranskinean** jasotako gai-zerrenda espezifikoarean edukiari buruzko galderekin osatutako azterketa.*

Epaimahaiaren irizpidearen esku dago azterketa mota aukeratzea; azterketa aukerako erantzunak ematen dituzten galdera-sortak izan daitezke, edo aipatutako gai-zerrendako gaien inguruan galdera edo gai zehatzak aukeratu eta idatziz garatzekoak izan daitezke.

Ariketa honetan, gehienez, hogeit hamar (20) puntu lortuko dira. Gutxienez, hamar (10) puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko."

A eta B ariketak IRAILAREN 23an goizeko 10:00etatik aurrera egingo dira, bata bestearen jarraian.

Tokia: UNEDeko egoitzan egingo dira, bata bestearen jarraian.

2.- 4. hizkuntza-eskakizunari dagozkion frogak uztaileko deialdian Araban egiteko aukera ez dela posible izan eta IVAPek IRAILERAKO aurreikusitako duen deialdian parte hartzeko eskaera egin da.

Beraz, jakinarazten da aipatutako probak Donostian (Gipuzkoan) izango direla irailaren 16tik urriaren 16ra bitartean (IVAPetik kontrakoa erantzuten ez badute behintzat).

IVAPek zehaztutakoan jakinaraziko dira zeintzuk diren data(k), ordua eta tokia (helbidearekin).

Beraz, 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez dutenek deialdi horretara joan beharko direla jakinarazten da.

Bergaran, 2021eko uztailaren 15ean

Epaimahaiaren idazkariak

